



BEHARGINTZA-ENKARTUR ENPRESA-PROIEKTUEN LEHIAKETAREN XVI. EDIZIOA



Enpresa-proiektuen lehiaketaren XVI. edizioa

BEHARGINTZA-ENKARTUR 2024

Proiektu hau Enkarterrin kultura ekintzailea sustatzeko eta eskualdeko enpresa-haztegietan garatuko diren enpresa-proiektuak erakartzeko sortu zen. Ekimena Behargintza-Enkarterren Plan Estrategikoan zehaztutako helburuetako bat da; izan ere, eskualdearen garapenean laguntzeko konpromisoa duen eragilea den aldetik, elkarteak **enpresa-proiektuen lehiaketa** hau aurkeztu du helburu hori lortzeko (beste hainbat ekintzen artean), alegia, **Enkarterrin kultura ekintzailea sustatzea eta jarduera ekonomiko berrien sorrera bultzatzea.**

Gainera, **30 urtetik beherako gazteentzako kategoria** gehitu da, **“Gaztedi Enkarterri”** gazteentzako enplegurako planean jasotakoari jarraikiz.

1. Helburuak

Hauk dira ekimen honen bidez lortu nahi diren helburuak:

- Enkarterrin kultura ekintzailea sustatzea.
- Enkarterriko haztegietan enpresa-proiektuen ezarpena bultzatzea.
- Enkarterrin enpresa eta lanpostu berriak sortzeko erraztasunak ematea.
- Enkarterriko gazteak enpresak sortzera bultzatzea.

2. Nori dago zuzenduta?

Nagusiki, Enkarterriko biztanleei, banaka zein taldeka, bai eta eskualdeko biztanle EZ direnei ere, egoitza soziala eta lantokia Enkarterrin izango dituen enpresa-jarduera berri bat abiarazi nahi dutela adierazten badute.

Eskualdean 2024. urtean abian jarri diren enpresak sortzeko proiektuak (hau da, EJZren alta 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 30era bitartean egin dutenak), edo, aldi horretan eskualdetik kanpo eratu arren, egoitza soziala eta lantokia eskualdean 2024ko abenduaren 30a baino lehen instalatu dutela frogatzen dutenak.

Hainbat pertsonak garatutako proiektuen kasuan, nahikoa izango da horietako batek 18 eta 29 urte artekoa (biak barne) izatea proiektua gazte-proiektutzat hartzeko.



3. Sariak

HELDUENTZAKO KATEGORIA:

- ✓ **Lehen saria: 1.500 euro + Enkarterriko enpresa-haztegi batean kokatutako lokal bat doan erabiltzeko aukera jardueraren lehen hiru urteetan (urteko aurreztea 8.000 euro ingurutan zenbatetsita dago).**
- ✓ **Bigarren saria: 1.000 euro**

GAZTEENTZAKO KATEGORIA:

- ✓ **Lehen saria: 2.500 euro + Enkarterriko enpresa-haztegi batean kokatutako lokal bat doan erabiltzeko aukera jardueraren lehen hiru urteetan (urteko aurreztea 8.000 euro ingurutan zenbatetsita dago).**
- ✓ **Bigarren saria: 1.500 euro + Enkarterriko enpresa-haztegi batean kokatutako lokal bat doan erabiltzeko aukera jardueraren lehen hiru urteetan (urteko aurreztea 8.000 euro ingurutan zenbatetsita dago).**

4. Epaimahaia eta balorazioa

Behargintza-Enkarterreko kideek, Enkarterriko udaletako enplegu- eta gazteria-teknikariek eta eskualdeko mankomunitateko kideek osatuko dute epaimahaia. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Epaimahaiak beretzat gordetzen du sariren bat hutsik uzteko aukera, egoki iritziz gero, aurkeztutako proposamenen kalitate eskasa, zehaztasun eza eta abar kontuan hartuta.

Epaimahaiak beharrezkotzat jotzen badu, lehiaketan izena eman duten pertsonen elkarrizketa egiteko eskatu ahal izango die.

Balorazio-irizpideak

1. Proiektuaren bideragarritasuna eta ekonomia- eta finantza-garapena. **% 30**
2. Lanpostuen sorrera. **% 25**
3. Proiektuak eskualdeko udalerrien beharrekina eta ingurumen-jasangarritasunarekin duen lotura. **% 25**
4. Proiektuaren berrikuntza-maila. **% 20**

Saritutako proiektuek ez dute zorrik izango Ogasun sailekin, ez eta Gizarte Segurantzarekin ere. Irabazleek sariaren berri jaso ondoren aurkeztu beharko dituzten ziurtagirien bidez egiaztatuko da hori.



Hainbat proiektuk berdindu egiten badute, 1. irizpidearen arabera (proiektuaren bideragarritasuna eta garapena) kalifikazio handiena duen proiektua gailenduko da lehenik eta behin. Berdinketak badirau, 2. irizpidearen arabera (lanpostuen sorrera) kalifikazio handiena duen proiektua gailenduko da. Berdinketak badirau, 3. irizpidearen arabera (proiektuak eskualdeko udalerrien beharrekin duen lotura) kalifikazio handiena duen proiektua gailenduko da. Azkenik, berdinketak badirau, 4. irizpidearen arabera (berrikuntza-maila) kalifikazio handiena duen proiektua gailenduko da.

Arestian xedatutakoaren ondoren berdinketak badirau, bilera bana deituko da berdindutako proiektuen sustatzaileekin, proiektu bakoitza sakonago aztertzeko. Kasu horretan, teknikariek aukeratuko dute irabazlea, proiektu osoena eta bideragarriena gailenduz irizpideen arabera.

Langileak kontratatzeko irizpideak berariaz jasota egon beharko du proiektuaren kostuetan, eta irizpide horren beharrak justifikatuta egon beharko du, ebaluatu ahal izateko.

5. Dokumentazioa eta izena emateko lekua

Nahikoa da bideragarria den enpresa-proiektu bat edukitzea. Hala bada, aurkeztu dokumentu hauek parte hartzeko eskaera egiteko:

- 1- **Izena emateko inprimakia** (Behargintza-Enkarterren eskuragarri).
- 2- **Negozio-plana**, behar bezala idatzia, hala eskatuz gero Behargintza-Enkarterrek emandako gidalerroei jarraituz.
- 3- **Emandako informazioaren zinpeko egiazkotasun-aitorpena, proiektuaren edo enpresaren ordezkariak sinatua.** (inprimaki-eredu librean).
- 4- **Parte-hartzaile guztien datuak jasotzen dituen eranskina.**
- 5- **Enpresako bazkideen curriculum.**
- 6- **Enpresako bazkide bakoitzaren NANaren kopia.**

Beste zehaztapen batzuk:

- Proiektu bakoitzaren ALE inprimatu BAT bidali beharko da.
- Proiektuaren kopia bat behar bezala identifikatutako euskarri informatiko batean ere eman beharko da (CD edo USB memoria).
- Proiektu bakoitzeko ordezkari bat izendatu beharko da, sarituen hautaketa-prozesutik eratorritako ondorioetarako.
- Lehiakide bakoitzak nahi adina proiektu bidali ditzake.

Izena emateko inprimakia eta lehiaketaren oinarriak Behargintzaren webgunean deskarga daitezke: www.behargintza-enkarterri.net



Izena emateko inprimakia eta oinarriak Behargintzaren egoitzan ere daude eskuragarri. Halaber, nahi izanez gero, behargintza@enkartur.eus helbidera mezu bat bidalita ere eska daitezke.

Aurkeztu helbide honetan parte hartzeko eskaera eta dokumentazioa:

BEHARGINTZA – ENKARTUR

Enkarterri kalea, 2

48840 - GÜEÑES (BIZKAIA)

9:00etatik 13:00etara

6. Lanak bidaltzeko epea

Lehiaketaren deialdia 2024ko urriaren 1ean irekiko da, eta proiektuak 2024ko abenduaren 30era arte aurkeztu ahal izango dira, 13:00etan.

Epaimahaiaren erabakia gehienez ere hiru hilabeteko epean jakinaraziko da.

7. Sarien ordainketa.

SARIAK EMATEKO BALDINTZA IZANGO DA ENPRESAK BAI EGOITZA SOZIALA BAI LANTOKIA ENKARTERRIN JARTZEA.

Sariak iragarri ondoren, irabazleek **bi hilabeteko** epea izango dute dokumentu hauek aurkezteko, eta hori ezinbestekoa izango da sariak emateko:

- **Enpresa berriaren eratze-eskrituraren kopia, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko duena (merkataritza-sozietateen kasuan); sozietate zibilaren edo ondasun-erkidegoaren eratze-kontratua, dagokion Ogasun-sailak baliozkotua; eta banakako enpresaburuaren kasuan, autonomoen alta Gizarte Segurantzari, non egoitza eta lantokia Enkarterrin daudela agertzen den.**

- **Ekonomia-jardueren gaineko zergaren alta (EJZ).** Bertan, egoitza eta lantokia Enkarterrin daudela adierazi beharko da. Lehiaketaren irabazleak sariaren parte den haztegia erabiltzea onartzen badu, esleitutako lokalaren helbidean ezarri beharko du enpresaren helbidea.

- **Enpresa berriaren IFK txartelaren kopia, merkataritza-enpresen edo enpresa zibilen kasuan, eta NANaren kopia, autonomoen kasuan.**



- **Sozietateak edo autonomoak Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.**

- **Proiektuaren sustatzaileen autonomoen alta, edozein dela ere merkataritza-sozietate edo sozietate zibil mota, bai eta besteren konturako langileen kontratuak ere, hala badagokio.**

Lokal batekin saritutako proiektuek **200 euro** ordaindu beharko dituzte abal edo berme gisa lagapen-kontratua sinatzean, lokala hiru urtez erabili ahal izateko.

Sustatzaileak Behargintza-Enkarterri saritutako proiektuaren bilakaera baloratzeko eskatzen zaion informazio guztia emateko konpromisoa hartuko du.

Dokumentazioa helbide honetara bidali behar da:

BEHARGINTZA – ENKARTUR

Enkarterri kalea, 2 · 1. solairua

48840 – GÜEÑES (BIZKAIA).

Dokumentu guztiak epe barruan aurkezten ez badira, irabazleak sariari uko egin diola ulertuko da.

8. Isilpekotasuna

Behargintza-Enkarterrek saririk irabazi ez duten parte-hartzaileek emandako datu eta proiektuei buruzko isilpekotasuna gordetzeko konpromisoa du.

Halaber, epaimahaiak bere erabakia iragarri ondoren, irabazleek onartu egingo dute proiektu sarituen ezaugarri orokorrak eta sustatzaileen izena eta irudia ezagutarazi ahal izatea.

Irabazleek lehiaketa eta Behargintza-Enkarter sustatzeko eskatzen zaizkien publizitate-ekintzetan parte hartu beharko dute.

9. Oinarriak onartzea.

Lehiaketa honetan parte hartuz gero, onartu egingo dituzu lehiaketaren oinarri guztiak eta epaimahaiaren erabakia, zeina apelaezina baita.



ENPRESA-PROIEKTUEN XVI. LEHIAKETAN IZENA EMATEKO INPRIMAKIA (2024)

(Enpresa-proiektua sustatzaile batek baino gehiagok aurkezten badute, bakoitzak inprimaki bat bete beharko du).

IZEN-ABIZENAK:

NANA:
.....

ADINA:
.....

UDALERRIA ETA HELBIDEA:

- **Ikasketa-maila (adierazi X baten bidez)**

- ✓ Ez dut amaitu oinarrizko hezkuntza.....
- ✓ Oinarrizko hezkuntza amaitu dut.....
- ✓ Batxilergoa.....
- ✓ Erdi-mailako prestakuntza-zikloa (zehaztu modalitatea)
- ✓ Goi-mailako prestakuntza-zikloa (zehaztu modalitatea)
- ✓ Erdi-mailako unibertsitate-ikasketak edo ikasketa teknikoak (zehatz itzazu)
- ✓ Goi-mailako unibertsitate-ikasketak (zehatz itzazu).....
- ✓ Autodidakta.....
- ✓ Beste kasu bat (zehatz ezazu).....
- ✓

- **Baduzu lan-esperientziarik (bai/ez)?**

- **Zein enpresatan egin duzu lan?**

AZKEN ENPRESA

Sektorea	
Lanpostua	
Data-tartea	



AZKEN-AURREKO ENPRESA

Sektorea	
Lanpostua	
Data-tartea	

• Zein da zure egungo lan egoera? (adierazi X baten bidez)

- ✓ Besteren konturako langilea naiz, kontratuarekin eta gizarte-segurantzarekin
- ✓ Besteren konturako langilea naiz, baina kontraturik eta gizarte-segurantzarik gabe
- ✓ Autonomia naiz.....
- ✓ Enpresaria naiz.....
- ✓ Ikaslea naiz.....
- ✓ Langabezian nago eta langabezia-prestazioa jasotzen ari naiz
- ✓ Langabezian nago eta ez dut langabezia-prestaziorik jasotzen
- ✓ Beste egoera bat.....

Proiektuaren azalpen laburra:

Sinadura